

Myriam Perez Cazabon ideia, koreografia eta zuzendaritza / idea, coreografía y dirección

Donostian eta Irunen hasi zituen dantza ikasketak. CODARTSen (Rotterdam) egiten ditu ondoren dantza garaikideko goi mailako ikasketak. 2004an hasten du bere ibilbidea dantzaren esparruan sortzaile, interprete eta irakasle modura, diziplinartekotasunarekiko interesa agertuz: musika (Mursego, Elle Belga, Hatxe), antzerkia (Hika), zinema (Akelarre), argazkilaritza (Nagorre Legarreta, Aitziber Orkolaga), diziplina anitzeko instalazioak (Larraitz Torres, RQER-Eva Villar), eskultura (Chillida Leku Museoa), dantzaz gainera (Ai Do project, Kukai, Red Atalak 2.0, Node, Doos Colectivo).

Bere jakin-min pertsonalak bultzatuta eta hizkuntza koreografiko propioan sakontzeko beharra ikusita, 2016an hasi zuen bere ibilbidea konpainia gisa, Eusko Jaurlaritzako dirulaguntza bati esker eta Gipuzkoako Dantzagunearen eta Donostia Kulturaren babes eta lankidetzari esker.

Se inicia en la danza entre Donostia-San Sebastián e Irun, y realiza sus estudios superiores de danza contemporánea en CODARTS (Rotterdam). Inicia su andadura como creadora, intérprete y docente en el ámbito de la danza en 2004, subrayando su interés por colaborar con diferentes artes como la música (Mursego, Elle Belga, Hatxe), el teatro (Hika Teatroa), el cine (Akelarre film), la fotografía (Nagore Legarreta, Aitziber Orkolaga), la instalación multidisciplinar (Larraitz Torres, RQER-Eva Villar), la escultura (Museo Chillida Leku), además de la danza (Ai Do Project, Kukai, Red Atalak 2.0, Node, Doos Colectivo).

Impulsada por inquietudes personales y la necesidad de ahondar en un lenguaje coreográfico propio, comienza su trayectoria como compañía en 2016, gracias a la subvención del Gobierno Vasco y al apoyo y la colaboración de Gipuzkoako Dantzagunea y Donostia Kultura.

Sofía Martínez musika / música

Piano eta harmonia ikasketak hasi zituen Gasteizen, Vitoria-Gasteizko Udal Musika Bandan ere tronpa joz. Talde honekin eskaini zuen lehen kontzertua 1983an bakarlari gisa, pianoa jotzen. Manuel Carrarekin jaraitu zituen musika ikasketak Madrilen, kontrapuntua eta fuga ere ikasiz. Gasteizera itzultzerakoan, Gasteizko goi mailako kontserbatorioan musika konposizioko goi mailako titulua eskuratu zuen, non lau urtez Carmelo A. Bernaolaren ikasle izan zen.

Hainbat ikastaro eta seminariotan hartu zuen parte, Cristóbal Halffter, Luis de Pablo, Luigi Nono, Pierre Boulez, Pragako hirukotea, Francisco Guerrero eta Gabriel Brncicekin lan eginez. 1991tik Parisen bizi izan zen, Elektroakustikarekin Konposizioa ikasiz Emmanuel Nunesekin eta Orkestra Zuzendaritza Nicolas Brochotekin. Espainiako Bankuak lagunduta Parisera mugitu zen 1992an eta l'École Nationale de Musique de Romainvillen onartua izan zen eta konposizio ikastaroak egin zituen. 1996 eta 2000 urteen artean, L'École Nationale de Musique de Sevran eta l'École de Musique de Parmain eskoletan musika irakaslea izan zen.

Bere lanak hainbat jaialdi eta antzokitan interpretatu dira: Errenteriako Musikastean, Bilboko Orkestraren denboraldian, Bayonako Orkestraren denboraldian, Nizako Manca Jaialdian, Reina Sofia Arteguneko Museo Nazionaleko 400 Auditorioan, Madrilgo Círculo de Bellas Artesen, Donostiako Musika Hamabostaldian, Granadako Musikaren eta Dantzaren Nazioarteko Jaialdian, Gasteizko Elektroakustikako Musika Jardunaldietan, Romako Espainia Akademian, Parisko Cervantes Institutuan, Veneziako Groggia antzokian, Alacanteko Nazioarteko Jaialdian etab.

Comenzó los estudios de piano y armonía en Vitoria, tocando a su vez como trompa en la Banda Municipal de Música de su ciudad natal. Con esta agrupación dio en 1983 su primer concierto

como solista de piano. Continuó en Madrid sus estudios de piano con Manuel Carra, estudiando al mismo tiempo contrapunto y fuga. De vuelta a Vitoria, obtuvo el título superior de Composición en el Conservatorio Superior de Vitoria donde fue alumna durante cuatro años de Carmelo A. Bernaola.

Asistió a diversos cursos y seminarios, donde tuvo ocasión de trabajar con Cristóbal Halffter, Luis de Pablo, Luigi Nono, Pierre Boulez, el Trío de Praga, Francisco Guerrero y Gabriel Brncic. Desde 1991 vivió en París, estudiando Composición con Electroacústica con Ernmanuel Nunes y dirección de orquesta con Nicolás Brochot. En 1992 se trasladó a París becada por el Banco de España y fue admitida en l'Ecole Nationale de Musique de Romainville donde realizó cursos de Composición. Entre 1996-2000 fue profesora de música en L'Ecole Nationale de Musique de Sevrans y en l'Ecole de Musique de Parmain.

Sus obras han sido interpretadas en Musikaste de Rentería, la temporada de la Orquesta de Bilbao, la temporada de la Orquesta de Bayona, Festival Manca de Niza, en el Auditorio 400 del Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, el Circulo de Bellas Artes de Madrid, Quincena Musical de San Sebastián, Festival Internacional de Música y Danza de Granada, Jornadas de Música Electroacústica de Vitoria, Academia de España en Roma, Instituto Cervantes de Paris, Teatro Groggia de Venecia, Festival Internacional de Alicante, etc.